



GRUPO
spri
TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

**“SPRI – ENPRESEN GARAPENERAKO
EUSKAL AGENTZIAREN” ETA
“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN”
ARTEAN LANKIDETZAN JARDUTEKO
PROTOKOLO OROKORRA**

Bilbon, 2022ko urtarrilaren 10ean

BILDU DIRA:

Alde batetik,

**SPRI – ENPRESEN GARAPENERAKO
EUSKAL AGENTZIA**, egoitza: Urkixo
Zumarkalea 36, Bizkaia plazako eraikina, 4.
solairua, 48011 Bilbo, eta identifikazio
fiskaleko zenbakia: Q-4800789-B.

Honako honek ordezkatzan du: Arantxa Tapia
Otaegui andrea (NAN:....., indarrean), SPRIren
Administrazio Kontseiluko presidente gisa,
SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO
EUSKAL AGENTZIAREN Administrazio
Kontseiluaren 2021eko maiatzaren 26ko
akordioak emandako eskumenekin.

Aurrerantzean, “**SPRI**” izenarekin egingo zaio
erreferentzia.

Bestetik,

**PROTOCOLO GENERAL DE
ACTUACIÓN COLABORATIVA ENTRE
“SPRI – AGENCIA VASCA DE
DESARROLLO EMPRESARIAL” Y EL
“TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA
DEL PAÍS VASCO”**

En Bilbao, a 10 de enero de 2022

REUNIDOS

De una parte,

**SPRI – AGENCIA VASCA DE
DESARROLLO EMPRESARIAL**, con
domicilio en Alameda de Urquijo, n.º 36
Edificio Plaza Bizkaia, 4ª planta, 48011,
Bilbao, y con Número de Identificación Fiscal
Q-4800789-B.

Se halla representada por D^a. Arantxa Tapia
Otaegui, con D.N.I. número, en vigor, actúa
en su condición de Presidenta del Consejo de
Administración de SPRI y debidamente
facultada en virtud de acuerdo del Consejo de
Administración de SPRI-AGENCIA VASCA
DE DESARROLLO EMPRESARIAL
celebrado el 26 de mayo de 2021.

En lo sucesivo, será denominada como “**SPRI**”.

De otra parte,



CONSEJO GENERAL
DEL PODER JUDICIAL

GRUPO
spri
TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA, egoitza: Barroeta Aldamar kalea 10, 48001 Bilbo.

Honako honek ordezkutzen du: Iñaki Subijana Zunzunegui jauna (NAN:, indarrean), Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidente gisa.

Aurrerantzean, “**EAEJAN**” izenarekin egingo zaio erreferentzia.

Biei erreferentzia egiteko “**aldeak**” hitza erabiliko da.

Bi aldeek, parte hartzen duten izaerarekin, Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokorra formalizatzeko erabateko gaitasuna aitortzen diote elkarri, eta horretarako

TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO, con domicilio en Calle Barroeta Aldamar, n.º 10, 48001, Bilbao.

Se halla representada por Excmo. D. Iñaki Subijana Zunzunegui, con DNI número, en vigor actúa en su condición de Presidente del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

En lo sucesivo, será denominada como, “**TSJPV**”.

A ambas partes, conjuntamente, se les denominará las “**Partes**”.

Ambas Partes con el carácter que intervienen, se reconocen recíprocamente plena capacidad para formalizar el presente Protocolo General de Actuación colaborativa a cuyo efecto,

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

- I. Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak politika industrialaren estrategia bizia darama aurrera, enpresa-lehiakortasuna sustatze aldera.
- II. SPRI Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailera atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoa da, eta haren xedea da, oro har, Euskadiko enpresa-ehuna babestu eta sustatzea, eta, horretarako, haren lehiakortasuna eta merkatu globaleko posizionamendua sustatzea.
- III. Aipatutako xedearen barruan, SPRIk lehentasunezko jardueratzat jotzen du zailtasun-egoeran dauden enpresa

EXPONEN

- I. Que el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente del Gobierno Vasco viene desarrollando una intensa estrategia de política industrial, para el fomento de la competitividad empresarial.
- II. Que SPRI es un ente público de Derecho Privado adscrito al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medioambiente del Gobierno Vasco, que tiene por objeto, en términos generales, dar apoyo e impulso al tejido empresarial vasco fomentando su competitividad y su posicionamiento en el mercado global.
- III. Que dentro del citado objeto, SPRI mantiene, como una línea de actividad preferente, la atención y el apoyo a

industrialen eta lotutako zerbitzuen arreta eta laguntza, enpresa horiekin lotutako industria-jarduera eta enplegua babesteko helburuarekin.

IV. Horretarako, SPRIk hainbat ekimen jarri ditu abian, eta, horretarako, mota guztietako protokolo, akordio eta hitzarmenak sinatzen ditu, hainbat erakunde eta organismorekin.

V. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Gobernu Salak Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegi-tako barneko gobernu-funtzioa zuzentzen du, Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren (aurrerantzean, “**BJLO**”) 152. eta hurrengo artikuluetan eta Auzitegi-tako Gobernu Organoen 1/2000 Erregelamenduaren 4. eta hurrengo artikuluetan aurreikusitako terminoetan.

VI. Une honetan, ekoizpen-unitatearen kontzeptu berri bat agertu da, maiatzaren 5eko 1/2020 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Konkurtso Legearen Testu Bategin berriaren harira, eta hartzekodunen konkurtso- edo aurrekonkurtso-adierazpenek gora egin dute, COVID-19aren pandemiaren ondorio ekonomikoaren ondorioz. Hortaz, SPRIren ustez konkurtso-prozesuen ebazpenak hobetu daitezke publizitate handiagoa emanda ekoizpen-enpresetako inbertsio-aukerei, bai enpresan parte hartuz kaudimengabezia-egoera gainditzeko, bai ekoizpen-unitatea erosiz.

empresas industriales y de servicios conexos, en dificultades, buscando salvaguardar la actividad industrial y el empleo asociado a dichas empresas.

IV. Que para todo ello, SPRI realiza diferentes iniciativas para lo cual suscribe todo tipo de protocolos, acuerdos y convenios con diversas entidades y organismos.

V. Que la Sala de Gobierno del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco desempeña la función de gobierno interno de los Juzgados y Tribunales radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los términos previstos en los artículos 152 y siguientes de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial (en adelante, “**LOPJ**”) y 4 y siguientes del Reglamento 1/2000, de los Órganos de Gobierno de los Tribunales.

VI. En este momento temporal, donde coincide la aparición de un nuevo concepto de unidad productiva, con la entrada en vigor del nuevo Texto Refundido de la Ley Concursal, aprobado por el Real Decreto Legislativo 1/2020, de 5 de mayo, junto a un previsible aumento de declaraciones de concursos y pre-concursos de acreedores, producto de las consecuencias económicas de la pandemia de la Covid 19, SPRI ha detectado que una posible mejora en la resolución de los procesos concursales es proporcionar mayor publicidad a las oportunidades de inversión en empresas productivas, ya sea participando en la compañía a fin de superar la situación de insolvencia, o, bien, adquiriendo la unidad productiva.



VII. Alde horretatik, SPRIk bi helburu finkatu ditu: batetik, garaiz ezagutzea konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoeran dauden enpresen argitalpenak, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-arloko epaitegietan izapidetzen diren konkurtso edo aurrekonkurtoetako ekoizpen-unitateen inbertsio- edo transmisio-aukerak ezagutaraztea. Horretarako, SPRIk proposatzen du, bere eskumenen barruan, lan-ildo bat sustatzea konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoeran dauden enpresei buruzko informazio interesgarria lortzeko prozesua sistematizatzeko eta publizitate handiagoa emateko, inbertsio-aukerak sortzeko eta enpresa-ehuna indartzeko tresna gisa. Informazio horrek barne hartuko ditu funtsezko alderdiak, besteak beste enpresaren identifikazioa; titulartasuna; jarduera ekonomikoa; nabe, aktibo eta ekoizpen-instalazioen titulartasuna; aplikatutako teknologiak; fabrikatutako produktuak; bezero, hornitzaile eta lehiakide nagusiak; ustiategiaren zifra ekonomiko eta finantzarioak; eta arazo eta beharren zehaztapenak. Horretarako, SPRIk inprimaki bat prestatuko du, informazio hori estandarizatu eta sistematizatzeko, datuen babesaren arloko indarreko legeak errespetatuz.

VIII. SPRIk aurreikusi du online plataforma bat sortzea, adierazitako konkurtso- eta aurrekonkurtso-egoerak erregistratu eta jakitera emateko. Horrez gain, plataforma horretan beste profil bat ere aurreikusten da, zailtasun-egoeran dauden enpresetan inbertitzeko edo horiek erosteko interesa duten enpresak hautemateko, baita

VII. En este sentido y con el fin de, por un lado, conocer en tiempo la publicación de las empresas en situación de concurso y pre-concurso; y, por otro, el poder dar a conocer las oportunidades de inversión o de transmisión de las unidades productivas de los concursos y pre-concursos que se tramitan en los Juzgados de lo Mercantil del País Vasco; SPRI, se propone impulsar, dentro de su ámbito competencial, una línea de trabajo que contribuya a sistematizar la obtención de información de interés y proporcionar mayor publicidad sobre las empresas que se encuentran en situación concursal y pre-concursal, como una herramienta que, en suma, pueda coadyuvar a la generación de oportunidades de inversión y al reforzamiento del tejido industrial. Dicha información alcanzará aspectos capitales como la identificación de la empresa, su titularidad, su actividad económica, la titularidad de naves, activos e instalaciones productivas, las tecnologías aplicadas, los productos fabricados, sus principales clientes, proveedores y competidores, las cifras económicas y financieras de la explotación, así como la concreción de su problemática y necesidades. Para ello, SPRI elaborará un formulario dirigido a estandarizar y sistematizar dicha información con pleno respeto a la legislación vigente en materia de protección de datos.

VIII. SPRI tiene previsto crear una plataforma online en la que se podrán registrar y publicitar las señaladas situaciones de concurso y pre-concurso. A su vez, en dicha plataforma, también se contemplará otro perfil dirigido a la detección de posibles empresas interesadas en la inversión en empresas en



inbertsio horrekin lortu nahi dituzten interesak identifikatzeko ere (aurrerantzean, **“Zailtasun-egoeran dauden Enpresak Kudeatzeko Plataforma”**).

Azken finean, orain arte egindako proiektuaren balorazioarekin bat, honako hauek izango dira Zailtasun-egoeran dauden Enpresak Kudeatzeko Plataforman sartzeko interesa duten edo inplikaturik dauden aldeak, erregistratzeko eta informazioa gehitzeko xedearrekin (horretarako, SPRIk emandako inprimakia bete beharko dute): zailtasun-egoeran dauden enpresak, inbertsioak egin nahi dituzten enpresak eta konkurtso-administratzaileak. Edonola ere, datuak babesteko legean jasotako baldintzak errespetatuko dira.

IX. Sistema honen bidez, ekoizpen-unitateak besterentzeko prozedurei publizitatea eta krisialdian dauden enpresetan inbertitzeko interesa dutenei informazioa eman nahi zaie. Azken batean, konkurtso- eta aurrekonkurtso-egoeran eta zailtasun bereziko beste egoera batzuetan egon daitezkeen enpresetan inbertsioak egiteko aukerak ezagutarazi nahi dira; horretarako, SPRIk industria-arloan duen ezagutza erabiliko da, eta azken helburua izango da enplegua eta industria-jarduera maila gorenean mantentzea.

X. Aurrekoa gauzatzeko, informazio-erregistro bat sortu behar da, Zailtasun-egoeran dauden Enpresak Kudeatzeko Plataforman dokumentazio interesgarria sartzeko. Hori dela eta, aldeek konpromisoa hartzen dute ahalik eta

dificultades o en su adquisición, y la identificación de los intereses que persiguen con dicha inversión en la compañía buscada (en adelante, la **“Plataforma para la Gestión de Empresas en Dificultades”**).

En definitiva, de acuerdo con la valoración del proyecto realizada hasta la fecha, las partes implicadas e interesadas en el acceso a la Plataforma para la Gestión de Empresas en Dificultades, a fin de registrarse e incorporar información, mediante la cumplimentación del formulario puesto a su disposición por parte de SPRI, serán: las empresas en dificultades, las empresas interesadas en realizar inversiones y los administradores concursales. En todo caso, se respetarán las exigencias contenidas en la ley de protección de datos.

IX. Con este sistema se pretende dar publicidad a los procedimientos de enajenación de las unidades productivas y proporcionar información a los interesados en invertir en empresas en crisis. En definitiva, se trata de difundir las oportunidades de inversión que puedan existir en relación con las empresas en situación de concurso y pre-concurso y en otras situaciones de especial dificultad, haciendo uso del conocimiento de ámbito industrial que tiene SPRI, y con el objetivo final de mantener al máximo nivel el empleo y la actividad industrial.

X. Habida cuenta que la materialización de lo que antecede se concreta en construir un registro de información para incorporar la documentación de interés en la Plataforma para la Gestión de Empresas en Dificultades, las Partes se comprometen a

ahalegin handienak egiteko, konkurtso- eta aurrekonkurtso-egoeran eta zailtasun bereziko beste egoera batzuetan egon daitezkeen enpresetan inbertsioak egiteko aukerei publizitatea, gardentasuna eta hedapena emateko, eta, hala, industria-ehuna eta lotutako zerbitzu-sareak babesteko, bai eta Euskadin enpleguari eusteko ere.

Horregatik guztiagatik, bi aldeek protokolo hau sinatzea erabaki dute (aurrerantzean, "**Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokorra**"), eta klausula hauek izango ditu:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- LANKIDETZAN JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORRAREN XEDEA

Honako hau da Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokorren xedea: (i) Aldeen arteko lankidetzaren oinarritzko termino eta baldintzak arautzea; eta (ii) aldeen balizko lan-arloak definitzea, beren ahaleginik onenak optimizatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan konkurtso- eta aurrekonkurtso-egoeran eta zailtasun bereziko beste egoera batzuetan egon daitezkeen enpresetan inbertsioak egiteko aukeren publizitatea, gardentasuna eta hedapena sustatzeko eta lankidetzan aritzeko eta, hala, industria-ehuna eta lotutako zerbitzu-sareak babesteko, bai eta Euskadin enpleguari eusteko ere

Aldeek adierazten dute Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honen edukiak erakusten duela beren eskumen-eremuetako jardueren

realizar los mayores esfuerzos para fomentar y colaborar en dar publicidad, transparencia y difusión a las oportunidades de inversión que puedan existir en relación con las empresas en concurso y pre-concurso y en otras situaciones de especial dificultad, a fin de tratar de salvaguardar el tejido industrial y de servicios conexos, así como el mantenimiento del empleo en Euskadi.

Por todo ello, ambas Partes acuerdan suscribir el presente protocolo (en adelante, el "**Protocolo General de Actuación colaborativa**"), que se regirá por las siguientes

ESTIPULACIONES

PRIMERO.- OBJETO DEL PROTOCOLO GENERAL DE ACTUACIÓN COLABORATIVA

Constituye el objeto del presente Protocolo General de Actuación colaborativa: (i) regular los términos y condiciones esenciales de la colaboración entre las Partes; y (ii) definir las potenciales áreas de trabajo de las Partes a fin de optimizar sus mejores esfuerzos para el fomento y colaboración en la publicidad, transparencia y difusión de las posibilidades de inversión que puedan surgir en relación con las empresas en situación de concurso y pre-concurso y demás situaciones de especial dificultad en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con el fin de salvaguardar el tejido industrial y de servicios conexos vascos, así como el mantenimiento del empleo en Euskadi.

Las Partes manifiestan que el contenido del presente Protocolo General de Actuación colaborativa refleja su voluntad de realizar, en



CONSEJO GENERAL
DEL PODER JUDICIAL

GRUPO
spri
TALDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

esparruan proiekturako finkatutako helburuak lortzeko ahaleginik onenak egin nahi dituztela. Bi aldeek partekatu egiten dituzte helburu horiek eta beren erantzukizun-arloetan lantzen dituzte. Proiektua garatzeko, hala badagokio, proiektuaren zenbait alderdi zehaztu beharko dira, eta aldeek konpromisoa hartzen dute alderdi horiek egokitzat jotzen duten unean jorrazteko.

BIGARRENA.- LANKIDETZAN JARDUTEKO PROTOKOLO OROKORAREN IRAUPENA ETA INDARRALDIA

Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honek sinatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak eta lau urteko epean egongo da indarrean.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZA- EREMUA

Aldeek adierazi dute ahalegin handiena egingo dutela, bakoitzak bere eskumenen esparruan, honako jarduera hauek lortzeko, Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honen helburu komuna lortzeko:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEJAN), Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 162. artikuluan ezarritako bidea erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza-arloko epaitegiei jakinaraziko die SPRIren online plataforma dagoela zailtasun-egoeran dauden enpresak kudeatzeko. Xedea da ordainketen judizioz kanpoko akordio bat lortzeko hartzekodunekin negoziazioak hasi direla jakinarazi duten enpresen

el marco de las actividades propias de sus respectivos ámbitos competenciales, los mejores esfuerzos para la consecución de los objetivos fijados para el proyecto, objetivos éstos que ambas Partes comparten y en los que vienen trabajando desde sus diferentes áreas de responsabilidad. El desarrollo del proyecto podrá, en su caso, exigir la concreción de determinados aspectos del mismo, que las Partes se comprometen a abordar en el momento en que así se estime oportuno.

SEGUNDO.- DURACIÓN Y VIGENCIA DEL PROTOCOLO GENERAL DE ACTUACIÓN COLABORATIVA

El presente Protocolo General de Actuación colaborativa surte efectos desde la fecha de su firma y se mantendrá en vigor por un plazo de cuatro años.

TERCERO.- ÁMBITO DE COLABORACIÓN

Las Partes expresan su voluntad de realizar, en el ámbito de sus respectivas competencias, sus mayores esfuerzos para el logro de las siguientes actuaciones, en aras al objetivo común que motiva este Protocolo General de Actuación colaborativa:

- (i) El TSJPV empleando la vía establecida por el artículo 162 de la LOPJ, pondrá en conocimiento de los Juzgados de lo Mercantil radicados en la Comunidad Autónoma del País Vasco la existencia de la plataforma on line de SPRI para la Gestión de Empresas en Dificultades. El objetivo es posibilitar la colaboración de las empresas que hayan comunicado la apertura de negociaciones con sus acreedores para alcanzar un acuerdo extrajudicial de pagos, así como la



lankidetzaz ahalbidetzea, bai eta konkurtsoan deklaraturako enpresen (eta, hala badagokio, azken horien) konkurtso-administrazioaren lankidetzaz ere, behin kargua onartuta, betiere konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoeran dagoen enpresaren jardura industrial eta/edo lotutako zerbitzuena bada, Zailtasun-egoeran dauden Enpresak Kudeatzeko Plataformaren dagokion inprimakia betetzeko. Horretarako, konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoeran dagoen enpresaren jarduerak industrial eta/edo lotutako zerbitzuena izan behar du. SPRIk inprimakia beteta jasotzen duenean, ahalegin handiena egingo du, dagokionaren arabera, jasotako informazioaren zati bat argitaratzeko Zailtasun-egoeran dauden Enpresak Kudeatzeko Plataformaren iragarkitaulan, betiere objektibotasun-, anonimotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak eta aplikatu beharreko legeria errespetatuz.

- (iii) SPRIk konkurtso- edo aurrekonkurtso-egoeran deklaraturako enpresa bati buruzko informazioa eskatzeko behar bezala erregistraturako interesdun batek osatutako inprimaki bat jasotzen duenean, SPRIk aztertu egingo du inprimaki hori, legez dagokionaren arabera, dagokion enpresari eta/edo prozesuan parte hartzen duen konkurtso-administratioari bidaltzea, bai eta inbertitzaile izan daitekeenari zailtasun-egoeran dagoen enpresaren profila ere, zailtasun-egoeran dagoen enpresaren industria-jardura eta enplegua maila gorenean mantentzeko prozesua has dadin.

colaboración de la administración concursal de empresas declaradas en concurso (y, en su caso, de estas últimas), una vez aceptado el cargo, y siempre que la actividad de la empresa en concurso o pre-concurso sea industrial y/o de servicios conexos, para la cumplimentación del correspondiente formulario de la Plataforma para la Gestión de Empresas en Dificultades. Para ello, será siempre preciso que la actividad de la empresa en concurso o pre-concurso sea industrial y/o servicios conexos.

- (ii) En el momento en que SPRI reciba el formulario completado, realizará sus mayores esfuerzos en aras a, según mejor corresponda, publicar parte de la información recibida, respetando siempre los principios de objetividad, anonimato y confidencialidad, así como la legislación aplicable, en el tablón de anuncios de la Plataforma para la Gestión de Empresas en Dificultades.
- (iii) A partir del momento en que SPRI reciba un formulario completado por un interesado debidamente registrado, solicitando información sobre una empresa declarada en concurso o pre-concurso, SPRI explorará la remisión, y siempre según legalmente corresponda, de dicho formulario a la correspondiente empresa y/o a la administración concursal involucrada en el proceso, así como el perfil de la empresa en dificultades, al potencial inversor, con el objetivo de que se inicie un proceso que pueda culminar en el mantenimiento, al máximo nivel, de la actividad industrial y el empleo de la empresa en dificultades.

LAUGARRENA.- JARRAIPENA



**CONSEJO GENERAL
DEL PODER JUDICIAL**

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

Alde bakoitzak bi solaskide izendatuko ditu, Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honen jarraipena eta ikuskapena egiteko, eta, halaber, Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honetan jasotako akordioen bilakaeraren arabera egokitzat jotzen duten bilkura-egutegia zehaztuko dute.

Lankidetzan Jarduteko Protokolo Orokor honetan jasotakoarekin ados daudela adierazteko, aldeek bi ale sinatu dituzte, ondorio bakar baterako, goiburuan adierazitako toki eta egunean.

CUARTO.- SEGUIMIENTO

Cada Parte designará a dos interlocutores para realizar tareas de seguimiento y supervisión del presente Protocolo General de Actuación colaborativa, con el calendario de reuniones que estimen necesario en función de la evolución de los acuerdos recogidos en el presente Protocolo General de Actuación colaborativa.

Y en prueba de conformidad con lo recogido en el presente Protocolo General de Actuación colaborativa, las Partes firman en dos ejemplares y a un solo efecto, en el lugar y fecha indicados en el encabezamiento.

**SPRI-Enpresen Garapenerako Euskal
Agentzia**

**SPRI – Agencia Vasca de Desarrollo
Empresarial**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIA**

**TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL
PAÍS VASCO**

D^a. Arantxa Tapia Otaegui and.

Excmo. D. Iñaki Subijana Zunzunegui jn.